

4

Erronka eta aukera berriak administrazioetako euskara teknikarientzat¹

Mikel Irizar

Komunikazioan aritua

mirizarintxausti@gmail.com

Sarrera-data: 2014-05-20 / Onartze-data: 2014-06-13

Laburpena. Euskararen normalizazio prozesuan aro berri baterako bidean gaude. Hurrengo txanparen helmuga irudikatzerakoan, saihestu behar ditugu bi arrisku: konformismoa eta ameskeria. Ametsa behar dugu eta doikuntza, airez betetako puxika ameslaria eta lurrari ongi itsatsitako lokarria. Puxikak lokarria jarriko du eguzkiari begira, eta lokarriak puxikari eutsiko dio, haizeak eraman ez dezan. Amets doitu behar dugu: begirada luzaraziko eta handira jokaraziko digun ametsa; eta amestutakoa lortzea eta lortutakoaz gozatzea ahalbidetuko digun doikuntza. • **Hitz-gakoak:** *hizkuntza politika, lan hizkuntza, berrikuntza.*

Abstract. We are heading towards a new era in the process to normalise Basque. When envisaging the finishing post of the next stage, there are two risks we need to avoid: conformity and delusion. We need to dream and to adjust, we need a dreaming balloon full of air with a rope firmly attached to the ground. The balloon will position the rope to face the sun, and the rope will keep the balloon in place so the wind does not blow it away. We need an adjusted dream: a dream that will extend our gaze and be more ambitious; and we need adjustment enabling us to achieve our dream and to enjoy it. • **Key words:** *language policy, workplace language, innovation.*

ABIAPUNTUA

I

Txiripa batzuk tokatu behar izan dira parean nire hausnarketa hau burutu zedin. Alde batetik, euskara teknikarien Udaltop jardunaldia eta Soziolinguistika Klusterrak antolatzen duena 2014an ekitaldi bakarrera ekarri izana; bestetik, Eralan³ ikerketa amaitzeko zorian egotea eta ni bertan partaide izatea; eta azkenik, jardunaldi bateratuaren programa zehazterako orduan Euskaltzaleen Topagunean presidente aritzeak eman didan ikusgarritasuna.

Ze, txiripak behar dira —atrebentziaz aparte— bizi osoan ekintzaile ibili dena intelektual plantan jartzeko.

1. BERRIKUNTZA

I

Mitologian txerta daitekeen hitza dugu dagoeneko. Arazo guztien konponbidea ekar lezakeen makilatxo magikoa. Hain zuzen, gure Jardunaldiak ere 'elkarrekin berritzea' proposatzen du.

Badago berrikuntza egituratu bat, metodo, talde eta baliabideetan oinarritzen dena. Berrikuntza garatzeko berariaz sortzen dira erakundeak edo sail bereziak enpresetan. Ez naiz horrelakoetan ibilia, baina kanpotik iruditzen zait ez direla aski metodoak, taldeak eta baliabideak, horiek berez ez dutela bermatzen emaitza berria. Nire esperientziaren arabera, berrikuntza nagusiki jarrera bat da eta soilik jarrera berritzailea dagoenean dira eraginkor beste osagai guztiak.

Bigarren ideia bat berrikuntzari lotua: **eten profesionalak lagungarri dira, egonkortasunak berrikuntza kamusten du**. Errazago eragingo du dinamika berritzailea esparru batera iritsi berri denak, urte luzez esparru horretan ari denak baino.

Bi ideia hauek gogoan, zilegi da galdera: **izan daiteke berritzaile administrazioeko teknikaria?**

Eta nire erantzuna: bai, oso berritzailea izan zen lehen txanpan, dena egiteko zegoen fasean; eta berritzaile iraun du lehen txanparen ondorengo ziabogan ere. Ekarpene handia egin diote administrazioeko teknikariek hizkuntza normalizazioari, eta horren ondorioz etorri da hain zuzen administrazioan eta harekiko harremanetan euskararen gorakada nabarmena. Justiziazkoa da meritu hori aitortzea, ekarpena sarri etorri delako auto-motibaziotik, bakardadean aritu direlako teknikari asko.

Bizi dugun uneak, ordea, premia eta aukera berriak sortu ditu eta erantzun berriak eskatzen. Hain zuzen erronka horri erantzutera dator

Euskararen normalizazio prozesuan aro berri baterako bidean gaude. Hurrengo txanparen helmuga irudikatzerakoan, saihestu behar ditugu bi arrisku: konformismoa eta ameskeria.

Amets doitua behar dugu: begirada luzaraziko eta handira jokaraziko digun ametsa; eta amestutakoa lortzea eta lortutakoaz gozatzea ahalbidetuko digun doikuntza.

Bistan da euskararen hiztun komunitateak nolako garapena izan duen azken bost hamarkadetan. Ez da soilik hazkunde kuantitatiboa izan. Aipatzekoa da nola hizkuntzaren funtzio ia guztiak berreskuratu diren.

Jardunaldi hau berau. Eta nire aburuz, administrazioko teknikarien jarduerak bultzada handia har lezake **berrikuntza bila abiatzen bada sare zabal eta indartsu baten baitan**. Egindakoaren eskarmentuari gaineratzen bazaizkio arlo akademikotik datozen ekarpenak eta hori guztia egosten eta partekatzen bada teknikarien eta euskalgintzako eragileen artean, bigarren txanpa indartsu baten aurrean egon gaitezke. Baina sarean jardunda, bakarka nekez. Hori da hemen garatuko dudana tesia.

2. ATZERA BEGIRAKOA

I

Ur handitan sartu gabe, bistan da euskararen hiztun komunitateak nolako garapena izan duen azken bost hamarkadetan. Ez da soilik hazkunde kuantitatiboa izan, nahiz eta hiztun kopuruaren zifrak nabarmen hazi diren. Aipatzekoa da nola hizkuntzaren funtzio ia guztiak berreskuratu diren, nola osatu den bere corpusa, nola sendotu den hiztun askoren hizkuntza praktika. Finean, nola normaldu den —gutxienez ‘normalagotu’— euskararen egoera esparru eta ingurune askotan. Eta, gorago esan bezala, justiziazkoa da azpimarratzea administrazioko teknikarien lanak emaitza horri egin dion ekarpena.

Hala ere, azken hamarkadan —bereziki— datu soziolinguistikoek agerian utzi dute euskararen normalizazio prozesuan ez doazela parean ezagutza eta erabilera. Seguruena oso uste mekanizista batek pentsarazi zigun ezagutza handitzen zen heinean, berez eta neurri antzekoan handituko zela erabilera. Kontua da gehikuntza baten eta bestearen tasak ez direla antzekoak eta erabileraren gehikuntza hasi dela tasa baxuak ematen, kasuren batean baita negatiboak ere.

Normalizazioan sumatzen hasi den erritmo apaltze horrek erne jarri behar gaitu, zergatiak aztertzen eta molde berriak asmatzen. Euskararen erabilerak bultzada baten premia handia du eta hori gauza ezberdinak egitetik etorriko da. Honenbestez, **berritzaile izan beharrean daude baita administrazioko teknikariak ere**.

3. ERRONKAK

I

Edozein esparrutan, normalizazio prozesuak izaten dira luzeak eta konplexuak. Hainbeste, ezin zaiela etengabe aldagai guztiei batera eragin, eta beharrezkoa dela lehentasunak ezartzea eginkizunetan eta baliabideen erabileran.

Euskararen normalizazioa erronka orokor moduan hartuta, dituen ertz ugariaren artean, ondoko hiru aldagaiak apartatu ditut, sinetsita

une honetan —eta administrazioiko teknikarien jarduera kontuan— lehenetsunez garatu beharreko ardatzak direla.

- **Euskararen aldekotasuna areagotzea**

Pertsona baten hizkuntza hautua faktore ezberdinek eragin dezakete. Horregatik, hautu pertsonal askoren ondorio den hizkuntzaren erabilera sozialak eskatzen du analisi konplexua, multifaktoriala.

Baina lan hori adituentzat utzita, ausartuko naiz faktore bati lehenetsuna ematen, **aldekotasunari**, hain zuzen. Hizkuntza hautuan eragiten duen 'giro orokorra' litzateke aldekotasuna. Eta duela 40 urte batez ere emozionala zen, debekuen ondorioz beroa, baina orain nahasten ditu hainbat faktore: prestigioa, ereduak, arauak, erosotasuna...

Aldekotasunak eragin handia izan du orain arteko bidean eta aurrera begira ere garrantzi handia du. Beharrezkoak ditugu aldeko maila guztiak —oztoporik ez jartzea, ontzat ematea, ulertzea— eta bakoitza baliatu behar dugu egokiena zaion testuinguruan. Eraginkorra da nola edo hala euskararen alde daudenei jarrera hori aitortzea eta aldi berean aitortza akuilu bihurtzea aldekotasuna mailaz igo dadin.

Nola neurtu aldekotasuna, ordea? Termometro bat da eskola ereduaren arteko gurasoen hautua, zeinetan etengabe den gero eta handiagoa euskarazko ereduaren aldekoa. Beste termometro bat litzateke, adibidez, hedabideetan euskara azaleko gai denean, ea informazioaren tonua baikorra den ala ezkorra; eta ezagutzen dut neurketaren bat %70ean tonu ezkorra eman duena.

Baina neurketa oso zientifikorik gabe ere, normalizazio prozesuan azken hiru hamarkadak hartzen baditugu nabarmena da bidean aurrera egiteak berak nola epeldu duen euskararen aldekotasuna, debekuen aurkako oldarra nola ahulduz joan den erdaren inposizioa ikusezino egin den heinean. Jauzi handiak lortu dira hezkuntzan edo administrazioan, eta lorpen horiei esker hedatu da uste faltsu bat, alegia, normalizazioa erdietsi dela eta ez dagoela zertan euskararen alde egin beharrik. Halaber, indartu egin dira euskararen kontrako diskurtsoak: askatasuna/inposizioa, sendagi-leak senda dezala edozein dela ere hizkuntza, lanerako oztopo...

Aldekotasuna areagotzeko ezinbestekoa izango da **hiritarren arteko zoru komuna aurkitzea eta sendotzea**. Eta zoru komun hori eraikiko da —hizkuntza kontuez harago— balio partekatuen gainean: bizikidetzeta, justizia, berdintasuna, aniztasuna, erantzukizuna... Termino horietan planteatuta, errazago izango zaio pertsonari bere erosotasun ingurutik mugitzea eta ezerosotasun maila bat

Euskararen normalizazioa erronka orokor moduan hartuta, dituen ertz ugariren artean, ondoko hiru aldagaiak apartatu ditut.

Euskararen aldekotasuna areagotzea. Normalizazioaren sabaiak apurtzea. Ajeak gaindituta, ilusioa piztea.

Beharrezkoa bada oinarrian hiritarrak biltzea euskararen alde, ez da erronka txikiagoa normalizazio prozesuari —aurrera egin ahala— agertu zaizkion sabaiak apurtzea.

Zoruak igo ahala ezinbestekoa da sabaiak apurtzea, normalizazio prozesua itoko ez bada. Eta sabaiak apurtzeko ez dago indarra metatzea beste biderik.

onartzea, helburu zentzuzkoak eta komunak lortze aldera. Euskararen aldeko diskurtsoa ari da parametro horietara hurbiltzen.

• **Normalizazioaren sabaiak apurtzea**

Beharrezkoa bada oinarrian hiritarrak biltzea euskararen alde, ez da erronka txikiagoa normalizazio prozesuari —aurrera egin ahala— agertu zaizkion sabaiak apurtzea.

Duela 30 urte euskarari lehen arnaguneak emateko sortu behar izan ziren euskara elkarteak, ghetto moduko batzuk euskaraz normal samar egin ahal izateko. Gaur egun euskaltzaleak kalean ari gara eta arnagune instituzionalak ari dira sortzen, edo sektorialak, eta horien artean bidegorriak. Gaur posible da, ingurune jakinetan, bizimodu normala eginda ehuneko handitan euskaraz bititzea.

Hain zuzen egindako bide horrek agerian jartzen ditu aurrera jarraitzeko dauden sabaiak. Adibidez, Jardunaldi honetan ezagutu dugu Eralan3 ikerketa, erakunde eta enpresen jendaurreko jardunean euskara soilik edo euskara gehiago erabiltzeko. Aldagai batzuk bila-kaera ona izan duten neurrian —hiritarren ezagutza, eledunen gaitasuna eta kontzientzia...— saiakerak egin dira jardun horretan hizkuntza ohiturak aldatzeko eta berehala agertu dira sabaiak: kazetarien erresistentzia, zarata mediatikoa, hiritar batzuren oldartzea...

Beraz, **zoruak igo ahala ezinbestekoa da sabaiak apurtzea**, normalizazio prozesua itoko ez bada. Eta sabaiak apurtzeko ez dago indarra metatzea beste biderik.

• **Ajeak gaintituta, ilusioa berpiztea**

Euskararen normalizazioan aje nabarmenak aurki daitezke. Batzuen oinarrian euskaltzaleon akatsak daude: uste okerren ondorengo frustrazioa, edo diskurtso ez egokien zama. Baina beste hainbat estrukturalak dira, iraunkorrak, modu egonkorrean kudeatu beharrekoak.

Euskara hizkuntza txikia da inguratzen dutenen ondoan, eta inertziak ia beti kontra ditu. Beraz, egoskortasun puntu bat behar da euskaraz irauteko eta horrek nekea sor lezake, hizkuntza estresa edo etsipena. Baina baita hizkuntzarekiko grina ere, gizartea eraldatzeko gogoia berdintasunera bidean.

Bestalde, euskararen normalizazioan ziklo aldaketa bizi dugu, iraganeko tresnak eta analisiak zaharkituak geratu zaizkigu eta berrien bila gabiltza. Trantsizio hori bera pizgarri izan daiteke ilusioa berpizteko, txanpa berri bati ekiteko, ziklo berrian indar berrituz sartzeko.

Hain zuzen, erronka handia dugu euskaltzaleok normalizazioa irudikatzen arnas luzeko prozesu baten modura, itolarririk gabe eta bizipozez hartu beharrekoa, gabeziatik ardua elikatuko diguna

eta lorpenetatik, ilusioa. Ez da erreferentzia txarra Karmelo Ayestaren 'Goza daiteke gehiago' liburua.

4. AUKERAK

I

Bizi dugun hau garai egokia da berrikuntzarako. Krisi orokorrak eragindako txikizioan aukera dago gauzak ezberdin egiteko edo gaiak bes-tela planteatzeko. Horrez gain, badira beste hiru faktore gurean norabide berean eragin dezaketenak:

- **Teknologia eta zientzia**

Azken hamarkadotan euskararen normalizazioak ia soilik edan du soziolinguistikatik. Orain zientziaren beste adar batzuk ere baditu eskura: sikolinguistika, sikologia soziala, ekologia, prospektiba... Eta hainbat gizarte mugimenduen eskarmentua: feminismoa, gay/les/trans mugimendua... Horiek guztiak erabil ditzakegu gure analisiak aberasteko eta diagnosiak osatzeko, egindako lana eraginkorragoa izan dadin.

Halaber, teknologia gero eta sofistikatuagoa daukagu eskura eta horrek ahalbidetzen ditu sareak, plangintzak, neurketak eta datuen kontrola. Ez dago aitzakiarik onenen parean ez ibiltzeko.

- **Euskaltzaletasun berritua**

Euskaltzaleen Topaguneak lau urtez egin duen eraldaketa barrutik ezagutzea egokitu zait eta uste dut gizarte aktibaziorako sekulako tresna bihurtzen ari dela mugimendua. Zorionez ez da kasu isolatua izan eta antzeko bilakaerak sumatzen dira euskalgintzako beste hainbat eragileengan, izan sozialak edo instituzionalak.

Humus horren gainean posible da tokikotasunean eta lankidetzan oinarritutako euskaltzaleen sare nazionala eraikitzea, teknikari profesionalak —administrazioak eta gizartekoak— lotuneetan kokatuta, zientzia eta teknologia erruz erabiliz, euskararen aldeko gizarte aktibazioa eragiten.

- **Aro politiko berria**

Euskarari kalte handia egin dio frankismoaren ondoren ezarri zen lubakien politikak. Batzuk soilik erakundeetan eta besteak soilik gizartean kokatuta, ez da gaitasunik egon euskararen normalizaziorako estrategia bateratu bat adosteko, eta euskararen kanpoko interesek behartu dute sarriegi elkarrenganako deskalifikazioa eta arbuioa.

Aro politiko berria hasi da Euskal Herrian eta lubakiak betetzen ari dira. Bide honetatik, egingarri ikusten da gizartearen kemena

Euskararen normalizazioan ziklo aldaketa bizi dugu, iraganeko tresnak eta analisiak zaharkituak geratu zaizkigu eta berrien bila gabiltza. Trantsizio hori bera pizgarri izan daiteke ilusioa berpizteko, txanpa berri bati ekiteko, ziklo berrian indar berrituz sartzeko.

Posible da tokikotasunean eta lankidetzan oinarritutako euskaltzaleen sare nazionala eraikitzea, teknikari profesionalak —administrazio-koak eta gizartekoak— lotuneetan kokatuta, zientzia eta teknologia erruz erabiliz, euskararen aldeko gizarte aktibazioa eragiten.

eta erakundeen ahalmena uztartuko dituen dinamika bat, orain arteko indar kenketa zegoen tokian indar metaketa ekarriko duena euskararen mesedetan.

Testuinguru ezin hobea da gorago aipatu den sarea osatzeko, kolore guztietako euskaltzaleekin eta toki batean zein bestean kokatutako profesionalekin.

5. AMETS DOITUA

I

Ilusioa pizteaz ari garela, bi arrisku gainditu beharren gaude euskararen normalizazioan murgilduta gabiltzanok: konformismoa eta ameskeria.

Konformismoak amets egiteari uko egiten dio eta egingarri ikusten denaren mugak azpimarratzen ditu behin eta berriro. Baina euskararen historiak berak erakusten du zenbateraino eraginkorra izan den muga horien gainetik begirada luzatzea eta haragoko ametsen bila joatea. Bertako erakundeak sortu eta administrazio zati handiak heredatu zirenean, esaterako, handira egin zen apustu eta hura guztia euskalduntzeko planak ezarri ziren. Eskerrak! Konformismoak ez zukeen ekarriko gaur egun administrazioan dugun egoera, eta gauza bera esan daiteke ikastolez, komunikabideez, euskara elkarteaz eta abarrez.

Bere aldetik, ameskeriak berehala bete nahi du ametsa, uko eginda egingarritasuna eta erritmoak aztertzeari. Azken hamarkadetan ameskeriaren adibide ugari ikusi ditugu, eta esango nuke hainbat ingurutan sumatzen den frustrazio puntua ere ameskeriak eragindakoa dela, ilargia eskuratu ez izanaren zaputzak. Frustrazioa saihesteko, beharrezkoa da ametsari forma zehatza ematea eta, ahal bada, zenbakitan jartzea; eta gero ametsera daraman bidea marraztea: epeak eta erritmoak, ibilbidea eta tar-teko helmugak, funtzioak eta eragileak, baliabideak eta antolamendua...

Ametsa behar dugu eta doikuntza, airez betetako puxika amesleria eta lurrari ongi itsatsitako lokarria, biak. Puxikak lokarria jarriko du eguzkiari begira, eta lokarriak puxikari eutsiko dio, haizeak eraman ez dezan. **Amets doitua behar dugu:** begirada luzaraziko eta handira jokatutako digun ametsa; eta amestutakoa lortzea eta lortutakoaz gozatzea ahalbidetuko digun doikuntza.

6. PROPOSAMENAK

I

Aurreko analisisian antzeman daitezke hemen jasoko ditudan ondorioetako batzuk. Azpian badago ikuspegi sistemiko bat, **persona jantzez eta motibatuz osatutako sare ahalmentzu batek euskararen normalizazioari**

ekar diezaiokeen bultzadarena. Ikuspegi horretatik abiatuta datoz ondoren balizko egoera berriaren zertzelada batzuk, bereziki —baina ez soilik— administrazioiko teknikariei zuzendutakoak:

- **Herrian/eskualdean saretu gizarteko euskaltzaleekin**

Euskararen sarea tokian eraiki behar da, herrian edo eskualdean. Eta Euskaltzaleen Topagunea izan daiteke lehen solaskidea, bi arrazoirengatik: alde batetik, tokiko aktibazioan aritzeko sortu zirelako euskara elkarteak, hain justu; eta bestetik, mugimendu eraldatuak bere ezaugarri hartu duelako tokiko euskaltzaleen topagune izatea, elkarte egituratik harago. Ardatz honen inguruan joango lirateke indarrak metatzen.

- **Soziolinguistikan jakintsuak saretu**

Tokiko sarearen osagarri litzateke jakintsuen sarea, soziolinguistikan eta honen inguruko zientzietan aditu diren euskaltzalez osatua. Honen lana litzateke pentsamendua sortzea eta moldatzea, diskurtsoa lantzea eta estrategiak zehaztea, plangintza, neurketak eta politikak proposatzea... Eta funtzio honetarako lankide egokiena Soziolinguistika Klusterra iruditzen zait, biltzen dituen bazkideak eta egin duen ibilbidea kontuan hartuta.

- **Autoritatea eskuratu erakundeen eta gizartearen aurrean**

Gainditzen ari garen dialektika gatatzatsuen ezaugarri bat izan da uste eta balorazio subjektiboetan ibiltzea, sarri aurreiritzi ideologikoen arabera egindakoak. Ondorioz, euskararen normalizazioaz ez da apenas hitz egin eta eztabaidatu, eta bai ika-mika edo liskarra eragin. Jakindurian oinarritutako autoritatea behar da, baloratzeko normalizazioan zer den ona eta zer txarra, noiz doan azkar eta noiz geldo, zein den norabide egokia eta zein okerra. Uste dut jarraitzekoa dela Euskaltzaindiaren Jagon sailak Soziolinguistika Klusterrarekin hasi duen lankidetzeta. Ez da ahaztu behar Euskaltzaindiari bere sorreran ezarri zitzaiola hizkuntzaren bi esparruetan —korpusean eta estatusen— aritzea eta, beraz, badagokiola normalizazioan ere autoritate izatea. Zer esanik ez, euskararen normalizazioak asko irabaziko luke onespren zabaleko autoritate batek gidatuko balu, Euskaltzaindiak korpusari dagokionean duen adinako onspena izango lukeen autoritateak, esaterako.

- **Komunikabideekin lankidetzan, komunikabide bihurtu**

Euskararen aldekotasuna areagotu nahi bada eta gizartea norabide horretan aktibatu, bistan da garrantzi handia duela komunikazio estrategiak. Zorionez, euskarak badu komunikazio esparru zabal

*Bere aldetik,
ameskeriak
berehala bete
nahi du ametsa,
uko eginda
egingarritasuna
eta erritmoak
aztertzeari.
Azken
hamarkadetan
ameskeriaren
adibide ugari
ikusi ditugu, eta
esango nuke
hainbat
ingurutan
sumatzen den
frustrazio puntua
ere ameskeriak
eragindakoa
dela.*

**Jakindurian
oinarritutako
autoritatea behar
da, baloratzeko
normalizazioan
zer den ona eta
zer txarra, noiz
doan azkar eta
noiz geldo, zein
den norabide
egokia eta zein
okerra. Uste dut
jarraitzekoa dela
Euskaltzaindiaren
Jagon sailak
Soziolinguistika
Klusterrarekin
hasi duen
lankidetzak.**

eta trinko bat, une honetan egituratzen eta areago trinkotzen ari dena. Toki komunikabideak saretzen ari dira TOKIKOMen inguruan eta euskal hedabideen sektore osoa antolatzen HEKIMENen bueltan. Oso garrantzitsua da hemen ere lankidetzan sartzea, komunikazioaren ikuspegia txertatzea egitasmo guztietan, horrekin biderkatu egin daitekeelako egiten denaren eragina. Hala ere, eta iazko Udaltop jardunaldian Iban Arantzabalek bota zuen bezala, gero eta guxtiago behar dira komunikabideak zerbait komunikatzeko, gero eta errazago komunikatu daiteke zuzenean egiten ari garen hori.

Irekia geratzen da proposamenen atal hau, Jardunaldian bertan sortuko diren ideien zain. ●

OHARRA

1. Artikulua 2014ko maiatzaren 15ean eta 16an Lasarte-Orian ospatu zen *Udaltop Soziolinguistika Jardunaldian* eskainitako hitzaldian oinarritu da.